


EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2020



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

ARTE GARAIKIDEA / ERAKUSKETA
ABE. 4, 2019 > URT. 26, 2020

Lester Álvarez eta José Ramón Ais

La verdadera noche

Praktika Artistikoen Egonaldia 2018



La verdadera noche

Lester Álvarez (Kuba) eta José Ramón Ais (Bilbo) artistek Lantegia. Ideien Laborategiko BAT Espazioa aktibatu egin dute. 2018ko Praktika Artistikoen Egonaldian gauzatutako proiektuen emaitza partekatzen dute bertan, Habanako Estudio Carlos Garaicoaren *Artista x Artista* programarekin lankidetzan.

José Ramón Aisek *Brillan en la noche* bideo-sorkuntza aurkeztuko du, Kubako naturaren eszenetatik abiatuta sortutako fikziozko paisaia bat zeharkatzen duena. Gaueko amesgaizto bat, kokoriko eta intsektu bioluminiszenteez argiztatua eta panorama gisa eraikia. Irudi horretan, herri-kontakizunen atmosferak bat egiten du iraultzaren jatorrian enblematikoak diren paisaiekin.

Panoramak, borroka historikoak irudikatzen ziren gailu pikturikoak, estrukturalki panopikoaren antzekoa zena, irudiaren, gailu optikoen eta arkitekturaren erabileren azterketa bat irekitzen du ideologiaren eraikuntzan eta hedapenean. Linterna magiko horretan, politika-, zientzia-, mitologia- eta herri-kontakizunak alderdi askotako irudimenean elkartzen dira.

Erakusketa borobiltzeko, Lester Álvarez artista kubatarraren bi proiektu daude ikusgai: *La Noche en Cuba* eta *Viaje del inquisidor Alonso de Salazar*. Lehenengoa 1959tik 2019ra bitartean margotutako akuarelen sorta da, gauari egindako erreferentzietan oinarrituta, eta batez ere 1959az geroztik argitaratutako literatura kubatarraren barruan kontatutako ametsen sorta. Bigarrena, berriz, 1611ko maiatzean Alonso de Salazarrek Nafarroako mendietan zehar egindako bidaiaz idatzi zuen txosten oparora ardatz hartu duen instalazioa da; haren bidaia berregitea da asmoa, 'ebidentzia' batzuk bilatzeko.

JOSÉ RAMÓN AIS (Bilbo, 1971) UPV/EHU Arte Ederretan lizentziatura eskuratuta eta Eusko Jaurilaritzako Nekazaritza Eskolan lorezaintza-diseinuko ikasketak eginda. Proiektuan, argazki-sail bat sortu du, Kubako imajinarioa eta paisaia eratzeko izan diren prozesuez hausnartzeko, gertaera historikoak, naturako baliabideen erabilera eta ustiapena, aldaketa soziopolitikoak, eta, batez ere, eguneroko erabilerak eta jendeak naturarekin duen harreman emozionala aintzat hartuta.

LESTER ÁLVAREZ (Camagüey, Kuba, 1984). Instituto Superior de Arte (ISA) erakundearen bukatu zituen goi mailako ikasketak 2011n. Orduz geroztik, sortzaile-ibilbidea garatzen hasi zen; denbora joan ahala, aukera izan du banakako erakusketak egiteko eta proiektu kolektibo askotan parte hartzeko. Haren lanak sariak ere jaso izan ditu, hala nola Ingalaterrako Emerson Collegeko Tengo Frío Artist Group beka eta Italiako Sardinian jasotako ISOLE Nazioarteko Pintura Bialaren IX. edizioko lehenengo saria.

////////////////////////////////////
2019ko abenduak 4 > 2020ko urtarrilak 26
Asteartetik larunbatera
16:30 - 20:30
Lantegia 2. BAT Espazioa
Sarrera dohainik

Bere sorkuntza prozesuaren inguruko tailerra
Urtarrilak 7 eta 8
Asteartea eta asteazkena
17:30 - 20:30
Lantegia 2. BAT Espazioa
Informazio gehiago 84. or.

////////////////////////////////////

Elkarlanean:

ARTISTA X ARTISTA

Laguntzailea:

Sabadell
Fundación

Fundación Banco Sabadell-ek Egonaldi Artistikoen Programa babestendu, artea eta kultura sustatzeko eta hedatzeko duen programaren barruan.